

DIRU SARRERAK

Gure enpresaren hasierako inbertsioa 1.000.000€-koa da. Kantitate hau lortzeko finantza iturri desberdinak izango ditugu:

- 5 bazkide gara enpresa sortuko dugunak, gutako bakoitzak 40.000€ko aurrezkiak inbertituko ditugu proiektuan, guztira 200.000€
- Gainontzekoa mailegu bate bitartez izango da. Negozio plana aurkeztu ondoren Banco Santander izan da eskaintza hobereana eman diguna. 25 urteetan itzultzeko epea eta %2ko interes tasarekin.

Negozioa martxan dagoenean, gure instalazioetan sarbidea izateko hiru kuota desberdin finkatu ditugu:

- KUOTA ARRUNTA: hilabetero 28€ ordaindu beharko dute eta honek instalazioen erabilpena eta gidatutako klaseetan apuntatzeko aukera ematen die.
- KUOTA BEREZIA: Entrenatzaile pertsonal bat eskura izateko, 40€ ordaindu beharko da. Instalazioak eta klaseetara joateaz gain, pertsonal trainner baten zerbitzuak jasoko ditu (dietak, ariketa pertsonalizatuak...)
- KUOTA PREMIUM: hilabetero 35€ ordaindu beharko dute. Kuota arruntaren irizpideak ditu, baina, gure instalazioetan sarbide totalarekin, asteburuetan lagun batekin etor dezakezu, gure web orrialdeko dietak, klaseak eta abar doainik daude.

Ordainketa egiteko hainbat modu eskura daude, hala nola, eskudiru, bizum eta txartela bidez.

Gure estimazioen arabera hurrengo bazkietza eskariak izango ditugu:

- Lehenengo hilabetetan: berritasunaren ondorioz jende mardoa gure instalazioak ikustera eta frogatzera etorriko direla aurreikusten dugu, gure makinari esker. Arrakasta handia izango duen gimnasioa izango da, bezero asko apuntatuko direlako, gure makina frogatzeko irrikaz. Ordu bakoitzean, 50 pertsona etor daitezke. Espero dugu 1000 bezero izatea eta gutxienez 28000 euro fakturatzea hilabetero.
- Behin ezaguna denean gure gimnasioa, bezero kopurua mantentzea izango da gure helburua. Bezero eskari berriak lortzeko ekintzak aurrera eramanez hilabeteko fakturazioa 28000€tan mantentzeko aurreikuspena dugu.